

Apirilak 22ko EAEko sektore publikoko greba deialdiak erantzun zabala izan du

ELA , LAB, CCOO, SATSE, ESK eta STEILAS sindikatuek EAEko zerbitzu publikoen alde, enplegu publikoa sortu eta kontsolidatzeko deitutako grebetako hiru hiriburutako manifestazioetan 18.000 pertsonatik gora parte hartu dute.

2021ko apirilaren 22a, Bilbon. 13:00h

ELA, LAB, CCOO, SATSE, ESK eta STEILAS sindikatuek, EAEko sektore publikorako deitutako greba deialdiak erantzun zabala eta jarraipen oso orokortua izan du behin behinekotasuna pairatzen duten langile publikoen artean. Hala ere, aipatu eta salatzea da Eusko Jaurlaritzak ezarritako zerbitzu minimoak direla eta milaka langile publikoei greba eskubidea ukatu zaiela, eta, ondorioz, greba bera oso baldintzatua egon dela.

Pandemia egoera honek, hiritarren mugikortasuna asko baldintzatzen duen arren, EAEko hiru hiriburutan eguardian deitutako manifestazioetan 18.000 langile inguruk parte hartu dute. Bereziki aipatzekoa da Bilboko manifestazioan milaka lagun batu direla, jendetsuena izanik.

Lehen orduko datuen arabera, aurreikusten genuen bezala, hezkuntza publiko ez unibertsitarioan eta unibertsitarioan greba eskubidea egikaritzeko aukera izan dutenen artean grebak jarraipen zabala izan du, eta ia erabatekoa izan da behin-behineko langileen artean.

Unibertsitatez kanpoko hezkuntzari dagokionez, jarraipena desberdina izanagatik ere, oso positiboki baloratzen dugu grebak izandako jarraipena; %50 ingurukoa, batez beste. Irakasleen kasuan, etapa desberdinei erreparatzen badiegu, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzan oso jarraipen zabala izan du grebak, % 55 ingurukoa, oro har. Bigarren Hezkuntzan zertxobait apalagoa izan da.

Heziketa Bereziko langileen erdiak baino gehiagok babestu du greba, eta Sukalde eta

Garbiketako langileei dagokionez, Eusko Jaurlaritzak garbiketako langile guztiak greba eskubiderik gabe utzi dituen arren %100eko zerbitzu minimoak ezarriz, oro har arratsaldez lan egiten duten garbitzaile ugarik hartu dute parte goizeko manifestazioetan; sukaldarien artean grebaren jarraipena oso zabala izan da, %55 ingurukoa, eta ugariak izan dira greba egiteko aukera zuten langile guztien babesak jaso duten sukaldeak. Besteak beste, Balmasedako Mendia eskola, Ortuellako Otxartaga, Trapagako San Gabriel, Getxoko Gobela, Askartzako Isusi, Igorre eta Lemoako eskolak Bizkaian, Amaña Eibarren, Oiartzun, Segura edo Urretxuko eskoletako sukaldariak Gipuzkoan, edota Gamarra eta Unamunzagakoak Araban.

Azkenik, haur eskoletan eta EHUn ere langile askok grebarekin bat egin dute, non bereziki aipagarria izan den Administrazio eta Zerbitzuetako langileen jarraipena.

Udal eta Foru esparruan ere, greba eskubidea egikaritzeko aukera zutenen artean jarraipen zabala izan da. Eskualde desberdinetako udaletxe handienetan jarraipena oso zabala izan da, plantilaren erdia baino gehiagoren babesak jasoz, oro har: horien artean aipagarriak dira hiru hiriburuetako udaletxeak -Donostia, Gasteiz eta Bilbo-, edota Laudio eta Amurrio Araban, Durango, Sestao eta Basauri Bizkaian, eta Beasain, Hernani, Bergara, Orereta eta Ordizia Gipuzkoan.

Osakidetzan, ezarritako zerbitzu minimoek guztiz baldintzatu dute grebaren jarraipena. Izan ere, milaka langileei greba eskubidea ukatu zaie zerbitzu askotan ezarritako zerbitzu minimoak %100 izanik. Hala ere, greba zerbitzu eta esparru askotan nabaritu da, batez ere lehen mailako arretan. Horren adibide da Gasteizko Salburuako eta San Martingo osasun zentroetan ez dela jendearentzako arretarik egon grebaren ondorioz. Bizkaiko call centerretan ere greba egiteko aukera zuten pertsonen %100k egin dute greba.

Komunikabide publikoei dagokionez, grebak jarraipen zabala izan du. Horren adibide dira Euskal Telebista, Radio Euskadi, Euskadi irratia, Gaztea eta Radio Vitoria. Guztietan gutxienezko zerbitzuak ezarritako informatiboak soilik emititu dira egun osoan zehar.

Bidaiarien garraioetako sektorean, berriz, kontuan hartu behar dugu ia guztia esku pribatuetan dagoela. Hala izanik ere, oraindik publiko diren esparruetan ditugun datuen arabera, lanuztea esanguratsua izan da, zerbitzu askotan zerbitzu minimoak arituko

direrarik.

Administrazio orokorrean eta justizia administratiboan jarraipena azken grebetako altuena izan da langilegoaren heren baten babesarekin, eta oso zabala behin-behinekotasuna pairatzen dutenen artean. Beraz, milaka langilek parte hartu dute sektore horretan.

Sektore publikoak bizi duen salbuespenetzko egoera honen aurrean, sektore publikoko langileek argi adierazi dute gure agintariak eta alderdi politikoek urgentziaz bere esku dagoen guztia egin behar dutela enplegu publikoa sortzeko, behin behineko 60.000 langileek euren enplegua kontsolidatzeko eta sektore publikoan ematen den pribatizazio politikarekin amaitzeko.

Gaurko erantzuna ikusita, greba deitzaileek argi daukagu helburua lortu arte borrokan jarraituko dugula.

ELA , LAB, CCOO, SATSE, ESK eta STEILAS

La huelga del sector público ha tenido un amplio seguimiento

Más de 18.000 personas han participado en las tres manifestaciones convocadas en la jornada de huelga a favor de los servicios públicos y la creación y consolidación de empleo público

En Bilbao a 22 de abril de 2021

La convocatoria de huelga convocada por los sindicatos ELA, LAB, CCOO, SATSE, ESK y Steilas para el sector público vasco ha tenido una amplia respuesta y un seguimiento muy generalizado entre los trabajadores públicos que sufren la temporalidad. Sin embargo, es de mencionar y denunciar que los servicios mínimos impuestos por el Gobierno Vasco ha negado el derecho de huelga a miles de trabajadores públicos y que han condicionada el seguimiento de la propia huelga.

A pesar de que esta situación de pandemia condiciona mucho la movilidad de las personas, en las manifestaciones convocadas durante la mañana en las tres capitales de la CAPV han participado cerca de 18.000 trabajadores. Destaca especialmente la participación de miles de personas en la manifestación de Bilbao.

Tal y como preveíamos según los datos a primera hora, en la educación pública no universitaria y universitaria, entre quienes han tenido la oportunidad de ejercer el derecho de huelga, la huelga ha tenido un amplio seguimiento y casi total entre los trabajadoras y trabajadores temporales.

En cuanto a la educación no universitaria, valoramos muy positivamente el seguimiento de la huelga, a pesar de su seguimiento desigual; en torno al 50%. Si atendemos a las diferentes etapas del profesorado, el seguimiento de la huelga en Educación Infantil y Primaria ha sido muy amplio, en general en torno al 55%, mientras que en Secundaria ha sido algo inferior.

Más de la mitad del personal de Educación Especial ha secundado la huelga; y en cuanto al personal de Cocina y Limpieza, aunque el Gobierno Vasco ha dejado sin derecho a huelga a todo el personal de limpieza estableciendo unos servicios mínimos del 100%, en las manifestaciones de la mañana han participado un número importante

de trabajadoras y trabajadores de la limpieza que trabajan generalmente por la tarde; entre los cocineros y cocinera el seguimiento de la huelga ha sido muy amplio, un 55% y han sido numerosas las cocinas que han recibido el apoyo de todos los trabajadores y trabajadoras como por ejemplo Mendia eskola de Balmaseda, Otxartaga de Ortuella, San Gabiel de Trapaga, las escuelas de Gobela Getxo, Askartza Isusi, Igorre y Lemoa en Bizkaia; Segura, Amana Eibar, Oiartzun y Urretxu en Gipuzkoa; y Gamarra y Unamunzaga en Araba.

Por último, también en la Universidad y en las Haur Eskolak muchas trabajadoras y trabajadores se han adherido a la huelga, donde ha sido especialmente relevante el seguimiento del personal de Administración y Servicios.

En el ámbito local y Foral, la huelga también ha tenido un amplio seguimiento entre los que podían ejercer el derecho a la huelga. En los ayuntamientos más grandes de las distintas comarcas el seguimiento ha sido muy amplio, con el apoyo de más de la mitad de la plantilla en general: entre estos destacan los ayuntamientos de las tres capitales, como son Donostia, Vitoria y Bilbao, o Llodio y Amurrio en Araba, Durango, Sestao y Basauri en Bizkaia y Beasain, Hernani, Bergara, Errenteria y Ordizia en Gipuzkoa.

En Osakidetza, los servicios mínimos establecidos han condicionado totalmente el seguimiento de la huelga. De hecho, a los miles de trabajadores se les ha negado el derecho a la huelga con un 100% de servicios mínimos establecidos en muchos servicios. En cambio, la huelga se ha notado en muchos servicios, sobre todo en atención primaria. Ejemplo de ello han sido los centros de salud de Salburua y San Martín de Gasteiz, donde como consecuencia de la huelga no ha habido atención al público. Asimismo, en los call center de Bizkaia, la huelga ha sido secundada por el %100 de los trabajadores y trabajadoras que podían hacer huelga.

Hala ere, greba zerbitzu eta esparru askotan nabaritu da, batez ere lehen mailako arretan. Horren adibide da Gasteizko Salburuako eta San Martingo osasun zetroetan, ez dela jendearentzako arretarik egon grebaren ondorioz, eta Bizkaiko call centerren greba egiteko aukera zuten pertsonen %100k egin dute greba.

En cuanto a los medios de comunicación públicos, la huelga ha tenido un amplio seguimiento, como son Euskal Telebista, Radio Euskadi, Euskadi Irratia, Gaztea y Radio

Vitoria. Todos los servicios mínimos se han emitido únicamente los informativos marcados durante todo el día.

En el sector del transporte de viajeros, hay que tener en cuenta que casi todo está en manos privadas. Sin embargo, según los datos disponibles en ámbitos aún públicos, el paro también ha sido significativo, con servicios mínimos en muchos servicios.

En la administración general y en la de justicia, con el apoyo de un tercio del personal, el seguimiento de la huelga ha sido uno de los mayores de los últimos años. Por lo tanto, han participado miles las trabajadoras y trabajadores también en este sector.

Los y las trabajadoras del sector público han puesto de manifiesto que, ante esta situación excepcional que vive el sector público, nuestros dirigentes y partidos políticos deben hacer todo lo que esté en su mano de manera urgente para crear empleo público, para que los 60.000 temporales consoliden su empleo y para acabar con la política de privatización que se da en el sector público.

Vista la respuesta de hoy los convocantes de huelga tenemos claro que seguiremos luchando hasta conseguir el objetivo.

ELA , LAB, CCOO, SATSE, ESK y STEILAS